

# EUSKARA, GIZARTE ZERBITZUETARA



Orain bizpahiru hilabete, Donostian Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren etxe berri ederra ikustatu nuenean, gauza batetan erreparatu nuen berehala: deiak eta oharrak bi hizkuntzatan idatziak agertzen ziren. Euskaraz eta erdaraz. Beraz, Euskal Herriko euskaldunok ere haintzatzat hartuak ginen etxe berrian, gure hizkuntza eta guzti. Atsegina gertatu zitzaidan aldakuntza, euskaraz ari garenok betidanik eskatu duguna baita gure hizkuntzaren ofizialkidetasuna. Izan ere, erabat premiazkoa da gizarte zerbitzuak euskaraz ere eskaintzea. Euskararen historian, benetan aro berri bat has genezake ofizialkidetasunarekin.

## Ofizialkidetasuna euskararentzat ere

Ofizialkidetasuna nornahiren ahotan dabil orain. Baita euskara ez dakien eta, agian, jakiteko asmorik ere ez duen askorenetan ere. Ez da hori txarra, baina ezin uka arriskuak ere badituena. Pentsa dezagun, hainbat galdera erantzuteko dauzkagula: *non, nor* eta *nola* egintzataratuko du ofizialkidetasun hori?

Horra gakoa, eta denon buruhaustea.

Dirudienez, gure kale eta enparantzetan hain gogoz aitortua den eskubidezko ofizialkidetasunak ez du aisa urratuko bere bidezidorra. Puska batean ez da erregebiderik izango. Baina egunen batean izan dezagun, hizkuntzaren politikarako nahitaezkoa dugu plangintza egoki bat. Hizkuntza baten ofizialkidetasunak, dirua eta orduak eskatzen ditu; izan ere, orainarteko elebakartasun ofiziala merkeagoa zen, datorren elebitasuna baino. Horregatik gogoratu beharko dugu, gerora ere, behin baino gehiagotan, elebitasun ofiziala proposatzean, ez garela ari ekonomia egiten, herri bat baino.

## Zerbitzu publikoak, euskaraz

Gizarte elebidun batetako hizkuntz ofizialkidetasunak (hau da, bi mintzaireri ofizialkidetasuna emateak) erabaki eta hautapen haundiak eskatzen ditu, garrantzizkoak esan nahi dut. Beti ere, legea bizitzarako da, bizi-moldeak bidezkoak eta zuzenagoak egiteko. Eta legea ezin daiteke izkribu eta hitz ederretan bakarrik gelditi.

Ofizialkidetasun legearen egitekoa hauxe da, hizkuntzen arteko harremanak egoera sozial zuzenago batetara eramatea. Nola, ordea?

Gizarte elebidun batek lehendabizi eskatzen duena zera da, **gizarte zerbitzuak euskalduntzea**. Euskaldunak, bere gizartearen, berdintasunik aurkituko badu premiazkoa du zerbitzu publikoek euskaraz ere egitea. Bestela, euskalduna beti izango da bigarren mailako hiritarra.

Zerbitzu publikoak aipatzean, mota guztietakoak gogoratu nahi ditut: administrazio publikoarenak, eta bestelako gizarte zerbitzu oro.

## Hirugarren sektorea, zerbitzuak

Ekonomistek hirugarren sektorean bildu ohi dituzte **zerbitzuak**. Esan dezagun honetaz zerbait.

Gaurreguneko euskal ekonomia eta gizartea ez dira herri atzeratu betenak, hazkuntza ekonomiko garrantzizko baten ondorenak baizik. Nazioartean ohi denaren arabera, Euskal Herria lurralde desarrolatuztat ematen da.



Arabaren kasua ikus genezake: orain guti industriatua denez, industri langileen portzentaia garaiena berak du (% 58,1) eta zerbitzuak nahiko eskas ditu oraindik (% 27,6). Horrela, ba, etorkizunean, eta lege ezagun bati jarraituz, euskal populazioa bere hirugarren sektorean indartuz joango da.

Hemendik urte batzuetara, hazkuntza ekonomikoa mantxotzen bada ere, gure jendetza aktiboaren % 40 edo gehiagok denda, banketxe, garraio-lan, ikastetxe, gaixotegi eta hola-moduzko lanbideetan ihardungo du. Dato demografiko horiek, gaurkoak eta etortzekoak, euskararentzat muntarik handiena ukan lezake.

Zalantzarik gabe, hiru sektore ekonomikoetatik, zerbitzuenak izan hoi ditu harreman sozialik aberatsenak. Nolabait esateko, zerbitzuen mundua da hizketaz gehienik baliatzen dena, hain zuzen zerbitzuek baitute giza-harremanen egiteko zuzena. Pentsa dezagun, hizkuntzarik gabe zer izanen litzatekeen gaixo-medikuen arteko, erosle-saltzaile arteko eta abarren arteko harremana.

«Baserrian salbatuko da euskara» esaten zitzaigun garairen batetan, baina baserriaren jendetza behera etorri da. Beharbada, ez genuke orain gezur handirik esango, haren orde, «zerbitzuetan salbatuko dugu euskara» esango bagenu. Iradoki ditudan arrazoiengatik, ez dago beste biderik. «Zerbitzuak» euskalduntzeko plangintza bat pentsatu beharko da. Industri lantegiak euskalduntzea premiazkoa da, noski, baina zerbitzu lantegietako erdarak agian kalte gehiago egiten dio euskarari, eta horrako antolatu beharko litzateke, batez ere, gure euskalduntzearen plangintza.

### Administrazioaren zerbitzuak

Hau da beste kapitulu nagusi bat, baina, leku faltaz, beste batetarako utzi beharko dut. Ez nuke, ordea, zerbaite esan gabe laga nahi.

Era askotako zergatan jasotzen dute Estatutik hasi eta Udaletarainoko gobernailuek hiritarren, **ciudadano** sofrituen, dirua. Eta, nik esango nuke, gizabanako bakoitzaren nortasuna osatu eta denen bizi-moldeak hobetzeko egiten dela hori.

Beraz, ez da inoren hizkuntzari ofizialtasuna ukatzeko.

Horrela, ba, orain euskaldunoi hizkuntz eskubidea ere onartuko omen zaigu. Baina **nola** eta **noraino** onartu? Hori da ikuskizun gelditzun zaiguna.

*Joseba Intxausti*

Hazkuntza horrek bere ibilaldia egina du, eta ondoriobidez populazioaren birmoldaketa bat gertatu da Euskal Herrian. Ekonomiaren hiru sektoreak honela banatzen zaizkigu (1973ko datuetan):

	Araba %	Bizkaia %	Guipuzkoa %	Nafarroa %
Lurgintza/Arrantzua	14,3	6,8	10,1	24,8
Industria/Meatzak	58,1	53,9	54,1	43,1
Zerbitzuak	27,6	39,3	35,8	32,1

Gure eboluziobide ekonomikoaren berri dakienak laster sumatzen du xifre horietan gertatzen ari dena: jendetza aktibo gehiena lurgintzatik industriara pasatzen ari da. Eta herrialde aurreratuenetan (Bizkaian, Gipuzkoan) areago oraindik: industri sektorea murrizten hasia da, hirugarren sektorearen probetxutan. Horren kontrast bezala,